


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

133. zenbakia

98ko martxoak 13



Azpiegitura kontuak

Arg.: M. Albisu

FS
oto istema

ORDIZIA

Tren geltokiaren aurrean

☎ 88 93 25

**Zatoz eta ikusi Aste Santurako
OLYMPUS eta RICOH kamaretan
ditugun eskaintzak**

**KARNETERAKO ARGAZKIAK
6 ERAMAN ETA 4 ORDAINDU**

Edozein eratako dokumentuentzat: NAN, Gidatzekoa, e. a.



BEASAINEN... ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA DENONTZAT

BAINA, ZER DA
ETXEZ ETXEKO
LAGUNTZA ?

ZU EDO ZURE FAMILIAKO BAT EZINEAN
BADABIL EDO ARAZOAK BADITU...

- *Jaikitzen eta oheratzen.*
- *Garbitzen eta bainatzen.*
- *Janzten eta erantzten.*
- *Jaten.*

ZENBAT
KOSTATZEN
DA ?

850 PZTA/ORDUKO
(egunean 3 orduko
zerbitzua gehienera)

- *Eta zure diru-sarrerak
behar adinakoak
ez badira deitu*

80 52 38

*telefonora edo
etorri Beasaingo
Udaletxera.*

Lagundu zaitzakegu!

INTERESATUKO ZAIZU

Deitu 80 52 38
telefonora eta
berri emango dizugu.

BAITA
ERE...

- *Ohea egin,
erosketak egin,
eta abar.*



GIZARTE



BEASAINGO UDALA

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre
Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Koldo Urrestarazu, Edurne Albi-
zu, Josune Aldabe, Pilarre Mujika,
Aitziber Murua, Idurre Eskisabel,
Lazkaoko Ekimena eta Miren
Etxezarreta.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.800 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

Ordiziatik Bosniara laguntza

Apirilaren 2tik 12ra bitartean Mari Jose Ansalas eta Koro Del Bosque ordiziarak Bosniara joango dira, Ordizian bizi diren 3 bosniar errefuxiatuekin batera. Gorazdeko ospitalerako tresnak erosteko dirua eramango dute. Batez ere ginegokologia arloko materiala erosiko dute. Egoera hobetzen lagundu nahi dute. *"Hemendik dirua eraman eta Sarajevon erosiko ditugu tresnak. Hemen gauzak erostea zaila da eta hondatuz gero errepuestoko piezak han erostea ezinezkoa izango da. Bestalde, hegazkinean ere pisuan muga jartzen dute",* argitu du Korok.

Dirua biltzeko iaztik irekia dagoen kontu-korrontea dago: **2101 0162 38 0121977219**. Bestetik, martxoaren 28an eta 29an Ordizianek egingo duen Galan stand bat izango dute, Bosniako informazioa emateko aprobetxatuko dute eta bide batez baita dirua biltzeko ere. Ordizian merkataria elkartekoek ahal duten neurrian laguntza emango dutela agindu diete. Urdaneta ikastetxeko



Guraso Elkartek eta Caritasek ere emango dute laguntza.

Gerra bukatu ondoren, iaz joan ziren lehenengo aldiz Ordizian bizi diren hiru bosniar errefuxiatu beraien jaioterrira. Momentu gogorra izango zela eta laguntzera joan ziren Mari Jose Ansalas eta Koro Del Bosque. Egoera oso gogorak ikusi zituzten, Gorazdeko ospitalean bereziki. *"Daukagun informazioaren arabera, etxeak-eta ari dira eraikitzen piskanaka. Baina lan arloak berdin jarraitzen du. 15.000-20.000 pezetako soldata daukate. Emakume batek adibidez, 16.000 pezeta irabazten ditu eta bere umea gaixotu eta berarentzako jarabeak 3.000 balio ditu. Handik herrialde batera joan nahi dutela esaten digute, bizi-tzeko adina ez dagoela",*

BOTA BERTSOA



Iker Zubeldia
(Goierriko bertso-eskolako
ikaslea)

Sagardotegiak

*Doinua: Esateko ez
naiz lotsa...*

Sagardotegiko demak dastatzeko ahalmenak txuleta eta tortila dira jenero onenak argalak eta gizenak ikututa daude denak modu berean bukatzen dira afal osterik gehienak.

Etzanda kupel ertzean eskalearen antzean komeri latzak izaten dira handik irtetean kotxe barrura sartzean tripak bueltaka hastean gero hondarrak uzten ditugu bide bazter bakoitzean.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Errepresioaren gainetik, gazteok eraikuntza nazionalaz, garaipeneruntz!

Jadanik 8 dira azken asteotan Goierrin atxilotu eta inkomunikatu dituzten gazteak, gehienek tortura psikologikoak salatu dituztelarik eta oraingoz 5 gazte beintzat Espainiako espetxeetan dispersaturik aurkitzen direlarik. Gazte hauetatik gehienak adin txikikoak izatea kontutan hartzeko beste faktore bat da, azken batean borrokaren eszenatokia lotu diren generazio berriak kokiltzeko ikastetxe eta herrietan lanean ari diren gazteak atxilotu eta espetxeratu dituzte, eskarmentu gisa.

Gaurko egunerarte hau da PNVren adostasun osoz (bere polizia politikoak burutu ditu atxilotetak, kontrolak..., Juan Vicente

Erausquinen eskutik Ordiziako udala bertako gazteen aurka akusazio partikular bezala agertzea...) PPK diseinatutako estrategia hiltzailearen azken adibidea. Beren helburu bakarra Euskal Herriaren eta euskaldunon eskubideen ezagutzaren alde borrokaren ari garenon desagertzea delarik.

Baina alfer-alferrik dabilta beste behin ere, kolpe errepresibo honekin eta etorri daitezkeen beste guztiekin, guri, Euskal Herriaren askatasun nazional eta sozialaren alde borrokan ari garenoi, indarra eta aurrera jarraitzeko grina besterik ez digute ematen oso ondo baitakigu norabide zuzenean goazela.

Idatzi honetatik, gazteok pairatzen dugun egoera latz honi buelta emateko gure konpromezua berresten dugu: jasaten ditugun bizibal-

dintza onartezinak hobetzeko borrokaz, ikasleok sufritzen dugun autoritarismo eta frantses-espainolizazioaren aurkako borrokaz, independentzia pertsonalez jokatzuz, euskararen aldeko ekimenak bultzatuz...

Bukatzeko zera adierazi nahi diegu PP, PSOE eta PNVko sasideemokratei eta

beren morroi besterik ez diren mikrofono eta lumadun txakurrei, hobe dutela Euskal Herria eta euskaldunon eskubideetan oinarritutako bakearen bidea hartzea, behin betirako utziz denontzat sufrimendua besterik ez dakarren gerra eta errepre-sioaren bidea.

Goierriko Jarrai

Esker onez

Etxahun Gorrotxategi Zuaitz gaztea

Hil berri den, guraso eta senideek, eskertu nahi dizute, ospaturiko hiletara joan zineten guztiak eta azken agurrean partaide izan zineten guztioi, hala nola Iparralde eta Muriako espetxetik, jasotako doluminak eta ikaskide eta irakasleek bere omenez, sorturiko bertso eta olerki bilduma.



*Herri txiki bizikoa,
izen antologikoa,
gaztetasuna dantzatu duzun
Etxahun mutikoa.
Zure ttakunaren joa,
gure bizitzan dihoa,
zume goxoki maiteko dugun
izar mitikoa.*

(Beasaingo Ikastola)



Kafe hauek denak...
FREXXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira



Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



BAQUÉ KAFEA
XUABEA

TXANDAKA

Ariketak

Askotan entzun dugu honen aldeko eta bestearen kontrako egunek ez dutela ezertarako balio; ezer gutxi aldatzen dutela. Alegia, hiesaren kontrako egunak ez duela hiesa sendatuko duen sendagaia ekarriko, aberriarenak ez duela aberririk askatuko eta langileenak ez duela langabeziarik konponduko. Zer esanik ez Martxoaren 8ak, Emakumeen Nazioarteko Egunak. Izan ere, kasu honetan "egun bereziaren" balioa ezezik, beharra ere jartzen da zalantzan. "Ez dago Martxoaren 8aren beharrik, berdintasuna lortuta dago jada". Esaldi hori gizon-emakume askok sarritan eman duten argudioa da.

Baina burua erabiltzeko balio behar du, gutxienez. Oroi-menaren ariketa politera jolasteko parada ezin hobe da. Gogora dezakegu azken hileotan gizonezkoen esku tratatu txarrak jasandako —kasu larrienen hildako— emakumeei buruzko albisteek bete dituztela komunikabideak. "Jokaera zinez gaitzesgarria gizon horiena. Psikopata nazkagarriak". Esaldi hori gizon-emakume askok sarritan eman duten argudioa da. Nik, ordea, ez dut sinesten. Oker daude gizon horiek, baliteke burutik nahastuta egotea ere, baina ez psikopatiaren batek jota, baizik eta gizartepatia batek. Oraindik ere, emakumeok menpeko, zerbitzuko objektu garena ikasten dute gizonezko askok —dela familiaren bidez, eskolaren bidez, komunikabideen bidez— eta halakoak bagina bezala jokatzeko dute. Emakume askok, halaber, objektu izatearen zama onartzen dugu. Eta menpekook jasanezinaren jasanezinaz matxinada txikiren bat hasten dugunean, ezin onartu; apurtu egiten gaituzte ume amorratuak aspergarri egin zaion jostailua apurtzen duen lez. (Diskurtsu ezker usaineko, zaharkitu eta modaz pasatua erabili dudala leporatuko dit batek baino gehiagok. Hala ere, ariketa polit eta baliagarria iruditzen zait sinismen sendoa errotutako teoria horiek noizik eta behin gogoratzea, postmodernoak, light-ak, eta erlatibizatze gehigizkoak itsutu ez gaitzan).

Idurre Eskisabel Larrañaga



Itsasondon eta Ormaiztegin ez da trenik geldituko abisatu gabe. Zer deritzozu?

Juan Mari Sagarzazu

21 urte, tabernaria
itsasondarra

Gaizki. Trena askotan erabiltzen dut eta Donostiara joateko garraio publiko bakarra trena da Itsasondon.



Anttoni Nazabal

42 urte, irakaslea
zaldibitarra

Ezin nuen sinistu geltokian oharra irakurri nuenean. Trenez Itsasondora etortzen naiz egunero eta astakeria da trena gelditzeko kobratzailea aurkitu eta abisu eman beharra. Hau soka baten hasiera da.



Ander Legorburu

18 urte, ikaslea
ormaiztegiarra

Ez dakit nola geldituko den azkenean. Momentuz abisatu gabe gelditzen da trena eta ez dut uste asko aldatuko denik.



"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

JM

SUKALDEAK

Euskal Herria Kalea

ORDIZIA

☎ 10 06 58

kontsulta eskatu



*Sukaldeak berritu edo muntatu behar baduzu,
prezio ezin hobe egingo dizugu*

ZINEA

GOIENIZ:

Martxoak 26, 'Un héroe muy discreto', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'**Titanic**'. Ostirala 13: 22:00; larunbata 14: 18:00, 22:00; igandea 15: 16:30 - 20:30. astelehena 16: 19:30.

ORDIZIA:

'**Titanic**'. Ostirala 13: 22:15; larunbata 14: 18:30, 22:15; igandea 15: 17:30 - 21:30. astelehena 16: 20:30.



'Un héroe muy discreto'
Jacques Audiard
(Frantzia, 1996)

Albert Dehossere iragana iruzur hutsa da, etxean aitari buruz urte luzeetan kontatu ziotena bezala (zurrutero koldarra izan zela ezkutatzuz); agian, horregatik Erresistentziako heroi izan zela sinistazaziko die bere erkideei. Baina iruzur hau orokorragoa ere izan daiteke, Frantzia osoak sinistu nahi baitu Nazien aurkako gerra batez ere haiek eta haien ahaleginari esker irabazi zutela.

Heroiaren desmitifikazio hau ez da, beraz, ohikoa gerrako filmeen artean are gutxiago frantses historiaren ikuspuntutik. Baina freskoa eta sinisgarria denik ezin ukatu, eta hori Audiarten gidoi sendoari eta Mathieu Kassovitz aktorearen hausnarketa praktikoari zor diogu. Izan ere, zinemaren fikzioan beste fikzio edo gezurrezko istorio bat eraikiz... errealitatea adieraz daiteke, akaso.

MUSIKA

ORDIZIA:

Martxoak 14, II. Ordi-ziako Akordeoi Lehiaketa-ko kanporaketa, 10:00etatik aurrera, Barrenan.

Martxoak 19, Beti Argi musika bandaren kontzertua, Plaza Nagusian, 13:00etan.

BERTSOLARITZA

ZUMARRAGA:

Martxoak 15, Erretako Ezkio-Itsasoko Agerre Haundi baserriaren aldeko bertso jaialdia: A. Egaña, J. Sarasua, S. Lizaso, J.M. Irazu, M. Lujanbio eta M. Mendizabal. Gai-jartzailea: Iñaki Murua. Beloki pelotalekuan, 22:30ean.

IKUSENTZUNEZKOAK

BEASAIN:

Martxoak 13, Nekane Intxaustik 'Kobazuloak: harkaitzen eta uraren alabak' bilduma proiektatuko

du, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Martxoak 23, 'Aisialdiaren Kontzeptu eta Azterketa' gaiari buruzko hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean. Hitzlaria: Olatz Altuna (Urtxintxa taldeko soziologa).

IKASTAROAK

BEASAIN:

Martxoak 25 eta 26, Magia ikastaroa, Toni Mercuriren eskutik, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean. Izen emateak: ☎ 88 79 00.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Martxoaren 13tik aurrera, Modesto Ferreiraren pintura erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan eta Aterpe Tabernan.

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN



USURBE

ZENTROA

- Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)
- Lumbagoa, ziatika
- Kirok lesioak
- Errehabilitazioa

☎ 16 13 39

Andra Mari, 9-1.

BEASAIN

Martxoaren 23tik aurrera, Josu Konde lazkaotarraren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 15: Ibilaldi neurtura irteera.

Martxoak 22: Santaimanara.

Idiazabalgo mendizaleak:

Martxoak 22: Mendizaleen Olinpiada (II).

'Denda berria: establezimendu bat irekitzeko gogoetak'

Ordiziako Merkataritzako Aholkularitza Teknikoaren Gabinetek martxoaren bukaerarako jardunaldiak antolatu nahi ditu izenburu honekin: 'Denda berria: establezimendu bat irekitzeko gogoetak'. Denda ireki nahi dutenei zuzendua dago eta horretarako bete behar diren pausoak eta kontutun eduki behar diren beste alde batzuei buruz hitz egingo da. Izena emateko eta informazio gehiagorako dei 160673 telefonora.

OTSAILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Mugalaris**
Angel Rekalde (Txalaparta)
- 2- **Zozoak beleari**
Sarasua-Egaña (Alberdania)
- 3- **Isladak**
Unai Iturriaga (Alfaguara)
- 4- **Sexulapikoa**
Luis Elberdin (Xenpelar)
- 5- **Incursiones en territorio enemigo**
Koldo Izagirre (Pamiela)

DISKOAK:

- 1- **Kashbad**
'Distantzia' (Esan ozenki)
- 2- **Lorelei**
'Bada hiri gorri bat' (Gaztelupeko hotsak)
- 3- **Mikel Urdangarin**
'Haitzetan' (Laggin)
- 4- **Drindots**
'Delilah' (I.Z.)
- 5- **Soziedad Alkoholika**
'No intente hacer esto en su casa!' (Mil a gritos)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

Martxoak 14-15: Urbizu (Kale Nagusia, 8- Beasain). 88 02 32.

Martxoak 21-22: Atorrasagasti (Poligonoa - Ordizia) 88 29 38.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Baserriko lanetan (frutazaintza biologikoa) astean egun batez (edo arratsaldetan) aritzeko pertsona bat behar da. 161945.

☐ Neska bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 16 00 99.

☐ Opel Corsa autoa salgai, SS-2036-AT matrikuladuna. Berri-berria. Oso modu onean. 72 12 11. Axun.

☐ Yamaha Virago 1100 motorra salgai. Egoera onean. Alberto 68 34 31. Gauean deitu.

Bestelakoak:

☐ Atenditu ezin dugulako artzai txakur polit eta mantsoa oparitzen dugu. Baldintza, libre ibiltzeko adina toki edukitzea. 161945.

☐ 4 modelo behar ditugu transformaziorako (moztu, kolorea eman edo moldeatua egiteko). Dohainik. Maider. 80 60 98.

☐ Eskoriatzan ikasten dugun hiru neska gara eta eguneroko joan-etorritako Zumarraga-Gasteiz norabidea egiten duten kotxeekin harremanetan jarri nahi genuke, garraio publiko ezagatik. Oztopo handienak Zumarragara bueltatzeko ditugu, ordubatean klasetik aterata. Ordaintzeko prest geundeko. Julene 72 24 57.

Salerosketak:

☐ 75 m²-ko lokala salgai, Beasaingo Oriamendi kalean. 88 00 65.

☐ Ezkon-logela salgai. Berria. 88 00 65.

☐ Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Pedigri onekoak. Mikel. 882927. Iluntzetan deitu.

☐ Artzai txakurkumeak salgai. Prezio onean. 885102.

☐ Piaggio NRG motorra salgai. Urez errefrigeratua, 1800 km, aseguru barne. Axier. 88 60 30.

☐ Vaillant berogailua salgai. Modu onean, Berria. 10 litrokoa. 88 99 32.

KAMIXETA ESTANPAZIOA FOTOKOPIAK KOLORETAN

- Koadernaketa • Plastifikazioa •
- Fax eta Eskaneatze zerbitzuak •

San Inazio, 5 ☎ 88 35 81
BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN

Lazkaoko Ekimena, euskal presoen giza eskubideen alde diharduena, bi jaialdi prestatzen ari da herriko festen ingururako: apirilaren 18rako herri-kirolak eta 24rako bertsolari-jaialdia. Ekintza horietan, euskal presoen (politiko eta sozialen) bisitarako eta Senideak taldeari laguntzeko dirua ateratzea du helburu zehatza.

AIPATU BI JAIALDI horietarako, Lazkaoko udalari hainbat eskari egin dizkio Ekimenak: behar den baimena, diru-laguntza, zenbait jestio egitea, udala partaide bezala agertzea...

LEHENIK, ordezkari bik elkarrizketa luzea izan zuten alkatearekin otsailaren 2an. Hasteko, ordezkari biek lehendik udaletxean idatziz sartua zuten eskaria komentatu zuten, eta alkateak zera esan zuen: jaialdiak egiteko baimena emanen zuela, baina laguntza ematea eta partaide izatea ez zitzaizola bidezko iruditzen: herrian sentsibiltate desberdinak zeudela eta urte batzuk lehenago Gestorari ere ukatu egin zitzaizola laguntza, ETAK hildakoak ere hor daudela. Honela erantzun zioten Ekimenaren ordezkariak: batetik, azken aldi honetan gizartearen sentsibiltatea asko aldatu dela, horren froga dela Gasteizko Lege Biltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak 1997-02-13an presoen alde agertutako plana (gehitu beharko litzateke, orain zenbait urte EAJ, adibidez, presoen sakabanaketaren eragile eta bultzatzaile bezala agertu zela; beraz, oraingo jarrerarekin garrantzizko jarrera-aldaketa egin duela); bestetik, hilketak eta presoen eskubideak defenditzea bi gauza desberdin direla, eta gauzak bereizten hasi beharra dugula, arazoak konpontzeko norbaitek pausoak ematen hasi behar duela. Puntu horien inguruan luze jardun ondoren, alkateak Gobernu Batzordearen bilerara gonbidatu zituen Ekimenaren bi ordezkariak.

HALA, eta bigarren, alkatearen go-mita onartuz, otsailaren 13an Ekimenaren lau ordezkari Gobernu Batzordearen bilerara joan ziren. Gobernu Batzordea lau lagunek osatzen zuten: EAJko bik, EAKo batek eta PSOEko

Presoen alde bai, baina ez

batek. Alkateak otsailaren 2ko arrazoi-keta bera egin zuen funtsean, eta Ekimenako ordezkariak ere aurreko adierazpen berdintsua. Galderarik ba ote zen itauntzean, EAJko Juan Felipe zinegotziak bakarrik hartu zuen hitza. Galdetu zuen ea, batetik, Ekimena prest ote legokeen ETARI su-etena eskatzeko, presoen aldeko ekintza ona litzatekeela ikusiz gero eta, bestetik, GALEko presorik balego, haren alde jarduteko prest ote legokeen. Erantzun zitzaion, batetik, ETARI su-etena eskatzea ez zela sartzen Ekimenaren xede-

"Lazkaoko Ekimenak uste sendoa du gizarteak, alderdi politikoen interes bastardoek gutxiago kutsatutako gizarteak, arazoak eta arazoak bereizteko duen ahalmenean".

etan; Ekimenak bere mugak jarriak zitzaizola bere buruari eta muga horien barnean jardun nahi eta behar zuela (taldearen xedeak lehendik idatziz zehaztuak zituen Ekimenak eta ahoz ere xeheki adierazi zituen bileran). Juan Felipek ekin eta ekin jarraitu zuen berarekin: Ekimenak presoen alde jardun nahi bazuen, su-etena eskatzea oso garrantzizkoa izan zitekeela. Erantzun zitzaion, presoen aldeko ekintza-molde asko egin zitezkeela; adibidez, langabeziaren kontra jardutea; langabezia gutxitzeak problema asko arinduko zukeela, baina hori ez zela sartzen Ekimenaren planetan. Bazirudien adibide horrekin argitu zitzaizola burua Juan Feliperi (ezin jakin ziur hala zen). Bigarren, GALEko balizko preso bati laguntzeari zegokionez, erantzun zitzaion, Ekimenaren planetan sartzen zela laguntza hori, balizko GALEko presoak Euskal Herrikoa izanez gero, eta beste edozeini bezala lagunduko liokeela.

HORRELA AMAITU ZEN Ekimenarekiko bilera, eta hurrengo astean erantzuna jasoko zutela esan zien alkateak lau ordezkariak. Erantzuna jaso ere, jaso dute otsailaren 20an. Jaialdiak egiteko baimena berresten da, oholtza edo tauladura festetarako udalak egokien irizten dion lekuan ezarriko da, apirilaren 18an herri-kiroletan udaletxeko soinu-ekipoa erabili ahal izanen du Ekimenak; beste guztiari (dirulaguntza, zenbait jestio egitea, udala partaide izatea, festetako egitarauan bi jaialdiak tartekatzea ...) ezezko borobila "bertaratutako partaide guztien adostasunez"; inolako arrazoirik ez idazkian.

HONEK GUZTIAK hainbat gogoeta eginarazten digu. Batetik, Gasteizko Giza Eskubideen Batzordeak, alderdi estatualisten aurka, presoen alde hain erabaki "gogorra" hartu berri duenean (aste honetan bertan), udalean ordezkari dituzten alderdi beretakoek (EAJ eta EA) presoen aldeko arazo hain xume eta ximplean guztiz kontrako jarrera agertzea txundigarri gertatzen da, beste zerbaitek ez esatearren. Bigarren, Senideak taldeak Euskal Herrian barna egindako jiran Lazkaotik pasatzean (1997-12-06) udalak bere atxikimena eman eta orain hari beretik egindako eskaerari ezezko borobila ematea paradigiko gertatzen da.

GOGOETA HORREK hainbat gauza ondorioztera garamatza. Bat: edota Gasteizen Giza Eskubideen Batzordeak hartutako erabakia antzerki hutsa da, edota aipatu bi alderdien barnean ez dago jarrera koherente baten transmisiorako inolako kate edo haririk. Bi: Senideak taldearekiko Lazkaoko Udalen atxikimena engainu hutsa izan da. Hiru: herriaren sentsibiltatea kasu batzuetan bakarrik aipatzen eta hartzen da kontuan; alde bateko hildakoen kasuetan bakarrik dira, nonbait, giza eskubideak kontuak hartzekoak.

HALERE, Lazkaoko Ekimenak uste sendoa du gizarteak, alderdi politikoen interes bastardoek gutxiago kutsatutako gizarteak, arazoak eta arazoak bereizteko duen ahalmenean.

Lazkaoko Ekimena

ERREZETA



Iker Markinez
Aldapa jatetxea
Ordizia

ALDAPA PUREA

Osagaiak: kalabaza txiki bat, kalabazin bat, berenjena erdi bat, 2 tipulin, 2 patata, porru bat, olioia, esnegain likidoa eta gatza.

Kazuela batean ura eta gatza jarri. Irakiten haste denean, kalabaza, kalabazina, berenjena, tipulina, patata, porrua eta olioia bota. Ordu erdi inguruz egosten eduki.

Ondoren litro erdi bat esnegain likido gehitu eta 10 minutuz irakiten utzi. Azkenik, guztia txinotik pasatu.

AHOLKUA



Miren Etxezarreta
Muguet loradenda

Oraingoan udako loreez hitz egitera nator, lore igokariez, zehazki. Gure inguruan oso gutxi eza gutzen ditugu, nahiz eta aukera oso zabala izan. Gure inguruan ondo egokitzen diren 3 lore igokari aukeratu ditut.

● *Lonicera periclymenum*:

madreselva edota 'Jaungoikoaren hatzaparrak' deitzen duguna. Garai batean sasietan azaltzen zena, oso usain goxoa du. Kolorez txuri-horixka da, 7 bat metro luzatzen da. Ondo gozatutako lurra

Lore igokariak

behar du, baita drenatze ona ere. Lore emaldia bukatutakoan kimatu egin behar da eta arbusto modura mantendu, nahiz eta gero, hildako egurra moztu eta hazkuntza neurtu. Eguzkitan ondo egoten dira, baita erdi itzalean ere.

● *Passiflora caerulea*:

(passionaria). Oso lore bitxia du, berezia. Lorearen ondoren fruitua ematen du, laranja-horixka. Jan-garria da fruitua. 10

metroko altura hartzen du. Argitasunari dago-kionean, eguzkitan eta erdi-itzalean ondo egokitzen da. Kimaketa udaberrian egin behar da. Erdi heldutako makilekin ugal daiteke lorea. Hostoa iraunkorra du.

● *Bougainvillea glabra*:

Igokarietan lore adierazgarriena du. Lorea lukuan izaten du, eta kolorez oso bixiak ditu: horia, laranja, fusia, gorria, txuria eta moratua. Gure inguruan ondoena egokitzen dena moratua da. Ondo gozatutako lurra behar du. Ur gutxi behar du eta lorea emandakoan (deskantsu garaian), ia lehorra. Eguzki asko behar du, hegoaldera jarri behar da. Kontuz izotzarekin.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



Etxegaraten bilkura

Otsailaren 28an 'Etxegarateren bikoizketa orain, atzerapen gehiagorik ez' lelopean konzentrazioa egin zen Etxegarat gainean, HBk deituta. 50 bat lagun bildu ziren bertan. Jose Julian Irizar Garraio eta Errepide diputatuak eta Roman Sudupe diputatu Nagusiak Etxegarate bikoizteko inongo asmorik ez daukatela ikusirik eta toki guztietan peajea jartzeko asmoa daukatela salatuz, mobilizazioetarako deia egin zuen HBk.

Izal-Segura-Zegama 2. Gazte Topagunea

Jarrai taldeak antolatutik, martxoaren 18tik 21era Segura, Idiazabal eta Zegamako gazteek 2. Gazte Topagunea izango dute. Bi helburu dituzte topaguneok: "batetik, gazteon eta gazte mugimenduko espresio ezberdinen arteko komunikazioa sakondu eta bermatzea eta bestetik, gazteok pairatzen ditugun bizi-baldintzen inguruan hausnarketak egin eta kaleratzea".

4 eguneko egitaraua prestatu dute: **Martxoak 18, asteazkena:** 'Ekonomiaren tertziarizazioa, turistifikazioa...' hitzaldia, Seguran, 8etan. **Martxoak 19, osteguna:** Zegaman, Topagunearen aurkezpena, 12etan. Ondoren antzerkia. Arratsaldean errefuxiatuei omenaldia eta 19:00etan hitzaldia: 'Jarrairen VI. Biltzararen aurkezpena'. **Martxoak 20, ostirala:** Seguran, 16:00etan, hitzaldia: 'Gazteak eta etxebizitza arazoa'. Ondoren antzerkia, Euskal presoak Euskal Herrira lelopean kalejira eta 21:00etan bertso-afaria. **Martxoak 21, larunbata:** 11etan, kotxe karabana Zegamatik Idiazabala. Ondoren Eduardo eta Iparrari omenaldia, 19:00etan hitzaldia: 'Gazteon lan baldintzak'. Ondoren antzerkia. 21:00etan, afaria eta kontzertua Benetan, Zea Mays eta Berri Txarrak taldeekin.



Ontzi 'arinen' Sailkapen Plantaren inaugurazioa

Sasieta Mankomunitateak ontzi arinak sailkatzeko planta inauguratu zuen martxoaren 6an. Legazpiko Industrialdeko T-27 eta T-28 pabiloietan kokatu da zehazki. Bere helburua kontsumo ondorengo ontzi arinak, hau da, etxetan sortutako plastikozko ontziak, metalezko ontziak eta Tetra Brikak berreskuratzea eta birziklatzea dira.

Planta hau lehena da Euskal Autonomia Elkartearen eta bost mankomunitateren zerbitzura egongo da: Sasieta, Tolosaldea, Deba Garaia, Deba Behea eta Urola Erdia. Guztira 312.000 biztanle, hau da, Gipuzkoako lurraldearen % 46a.

Dena den, hasiera batean planta honek Sasieta Mankomunitatea atendituko du soil soilik. Entitate honen esku egongo da bestalde, instalazioaren ustiaketa eta kudeaketa lana. Sasieta Mankomunitatea, Ordizia, Beasain, Lazkao eta Olaberri, 1994an hasi zen ontziak biltzen. Orain beste herrietara zabalduko da zerbitzua. Papera eta beira biltzeko edukinontzien tankerakoa izango da, laranja kolorekoa.

Inaugurazio ekitaldian Iñaki Txueka Ingurugiro eta Nekazari diputatua eta Mankomunitateko hainbat alkate izan ziren.

Istripua Ordizian

Martxoaren 8an, autobus istripua izan Ordizian. Zaldibiatik zetorrela San Joango sarreratik, tunelaren goia jo zuen. 55 errioxar zihoazen bertan eta 20 arinki zauriturik gertatu ziren. Txindoki-

ra igotzeko etorri ziren Errioxatik autobusez.

Sabotaia

Martxoaren 6ko gauean ezezagun talde batek Legorretako Kutxaren kutxazain automatikoa erasotu zuen.

AMEBI

Sagardotegia

URTE OSOAN ZABALIK
Astegunetan afariak
Astebukeretan bazkari eta afariak
☎ 16 25 23
LAZKAO

KUBIA

AU-PAIR

FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBBetan
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN

Arrasate, 33 behea C **DONOSTIA**
Tel-Faxa: 43 15 48

CGZ GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.
Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 **ORDIZIA**

Barne Sailaren arabera, likido su eragilea bota eta sua eman zien ondoren. Suak kutxazaina erre zuen eta keak bulegoa belztu zuen. Suhiltzaileek itzali zuten sua.

Drindots

Drindots taldeak laugarren diskoa kaleratu du: 'Delilah'. Dantzarako kantuak grabatu dituzte; hainbat kantu ezagunen bertsioak batzuk eta beraiek sortutako beste batzuek. IZ disketxearen eskutik kaleratu dute diskoa.

Pilar Iparragirre

Idiazabaldar kazetariak 'Deportación el mal menor' liburua kaleratu berria du, Txalaparta argiletxearekin. Aurretik beste bi liburu argitaratuak ditu. 1952an Idiazabalen jaioa da Pilar eta Urbian hazia da, gurasoak artzainak baitziren. Kazetaritza ikasketak egin zituen Donostian eta Bartzelonan.

Txirrindularitza

Beasaingo XVI. Usurbe proba-VI. Mikel Etxeberria memoriale Gaizka Lasak irabazi zuen. 54 kilometro-

Kimetz: IV. Ipuin lehiaketa

Kimetz elkarteak IV. ipuin lehiaketa antolatu du, 17 urtetik aurrerakoentzat. Gaia librea da, euskaraz nahiz gazteleraz. Gutxienez 5 orriko luzera izan behar du lanak, eta gehienez 10. Testuak izengoitiz izenpetuko dira eta kartazal itxi baten kanpoaldean jarriko da kontaketaren izena eta izengoitia. Barruan, berriz, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Lanak apirilaren 30a baino lehen bidali behar dira, Barrena Kultur Etxera. Hogeita hamarna mila pezetako bi sari banatuko dira; euskarazko eta gaztelerazko atalean bana. Emakumezko baten idatzitako ipuin onenari akzesita emango zaio.

ko ibilbidea ordu eta erdi pasatxoan egin zuen. Alcampo taldekoa da Lasa.

Afizionatuen denboraldia ere hasi da. Atarrabian jokaturako proban, Dioni Galparso ataundarra 5. izan zen eta Beñat Garaialde beasaindarra, 10..

VII. AEK Txiste idatzien lehiaketa

Goiztiri AEK euskaltegiek VII. Euskarazko Txiste idatzien lehiaketa antolatu dute. Helduak euskaraz idaztera bultzatzea du helburu lehiaketak.

16 urtetik gorakoek har dezakete parte lehiaketan. Txisteak euskara batuan edo euskalkian idatzi behar dira. Nahi adina txiste bidali daitezke. Apirilaren 30a baino lehenago bidali behar dira txisteak Ordiziako 116 posta-kutxara, norberaren izena, abizenak, herria eta telefonoa ondo jarrita.

Goiztiri AEK euskaltegietakoa ikasleek egingo dute hiru txiste onenen aukeraketa. Bina afariko hiru sari emango dira, Lazkaoko Amebi sagardotegian, Gabiriako Korta sagardotegi-itsaskitegian, eta Zaldibiako Lazkaoetxe nekazalturismo etxe eta jatetxean. Irabazleen berri GOIERRITARRA aldizkarian bertan emango da.



Zumalakarregi beka

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak Euskal Herriari buruzko ikerketa historikoa bultzatzeari jarraikiz, ikerlanak sustatzeko laguntza ekonomikoa

eskaintzen du, zortzigarren urtez. Lanen eremua, geografia aldetik Euskal Herria eta kronologia aldetik 1789-1841 izango dira. Gai aukeraketa egileen esku geratzen da.

Proiektuak apirilak 30 baino lehenago aurkeztu behar dira. Lan proiektuak jaso beharreko elementuak: izenburua; artxiboetan burutu beharreko ikerketen egitasmoa; oinarriko bibliografia; eta proiektuak historigunetikiko duen lotura adieraztea.

Laguntza 250.000 pezetakoa izango da. Informazio gehiago 88 99 00 telefonoan.



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00



☎ 88 55 00 ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarako, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN

ARRIETA

JATETXEA

☎ 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

LAZKAOKO INDUSTRIA LURRA ELKARTE PUBLIKOAREN ESKAINTZA:

"Pabiloien eta lurren promozioak orain atera behar dira, lana dagoenean"

Lazkaoko Zubierreka industrialdean, Fundiciones Etxeberria zegoen lurretan, industria pabiloia eta lurra ditu salgai. Lazkaoko Industria Lurra Elkarte Publikoak. Goierriko enpresei egin die eskaintza eta hasi besterik egin ez direnean, oso erantzun ona izan dute. Jesus Mari Eraña Lazkaoko Industria Lurra Elkarteko gerenteak adierazi digunez, lanez ondo dabilta Goierriko enpresak, eta momentu ona da era honetako promozioak egingeko.

Bi motako eskaintzak ditu Lazkaoko Industria Lurra Elkarte Publikoak. Enpresa txiki eta ertainentzat 10.000 m²-ko lurra dago, hauetatik 5.000 m²-tan pabiloia eraikitik salduko dituzte. Enpresa handientzat guztira 27.000 m²-ko lurra dago salgai, hauetatik 14.000 m² dira eraikigarriak. Era guztietan ere, beharrezkoak diren azpiegitura guztiak jarrita daude. Jesus Mari Eraña gerenteak adierazi digu-



Zubierrekako pabiloia Construcciones Sukiak eraikiko ditu.

nez erantzun ona izan du promozioak eta pabiloien erdiak eta lurren % 10a salduta daude jada.

Enpresa handitzeko asmoa duten enpresak etorriko dira Zubierrekako industrialdera. Guztiak ere enpresa industrialak eta industrial zerbitzuekin harremana duten enpresak izango dira, hori baita Elkarateak jartzen duen baldintza.

100 bat lanpostu izango omen dira industrialde honetan. "Denak lanpostu berriak izatea ezinezkoa da, baina enpresak handitu egingo direnez, lanpostu berriak ere sortuko dituzte", dio Erañak.

Momentu onean dator gainera Lazkaoko Industria Lurra elkaratearen promo-

zioa Erañaren esanetan. "Momentu onean dago Goierriko industria. Lan asko dago, enpresa batzuk lan gehiegirekin dabilta. Promozio horiek orain atera behar dira, lana dagoenean. Enpresen estruktura, makinak... inbertsioak orain egin behar dituzte, lana dagoenean". Gerenteak azpimarratu digunez, Goierri azalera honetako terreno urbanizatu bakarra Lazkaokoa da.

Elkarte Publikoa

Lazkao Industria Lurra Elkarte Publikoaren helburua industria lurra saltzea da. Orain dela 4 bat urte sortu zen. Lazkaoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Jaurilaritzako Industria Saileko Spilur dira bazkide-

ak. Iñaki Estensoro Lazkaoko alkatea da lehendakaria. "Lurra saltzerakoan ikusi zen inguruko enpresek, txikiak batez ere, pabiloia behar zituztela. Oso zaila zutela lurra erosi eta eurek pabiloia egitea. Orduan, antolatu zen lehiaketa mota bat, konstruktore pribatuen artean, eta azkenean Construcciones Sukiak irabazi zuen, eta elkarate publiko batek duen terreno batean, promozio pribatua egingo da. Promozio misto hori Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den lehenengo aldia da", zehaztu du Eraña.

Lurra eta pabiloia salgai jarri aurretik 400 milioiko inbertsioa egin zen duela 2 urte, azpiegiturak jarri eta hobetzeko. Elkarte publikoaren, abantaila lurren kostua ez aldatzea da. "Elkarateak ez dauka irabazteko helbururik. Gastatutako 400 milioiak berreskuratu nahi ditugu bakarrik, helburua autofinantzaketaketa baita. Elkarateak terrenoak saldu eta dirua daukanean, Fundiciones Etxeberriako bulegoak egokitu eta bulego berriak jartzeko asmoa dauka", argitu du gerenteak.

Argitaratzen duen edizioa argitaratzen.

En la edición de esta publicación colabora.



fundazioa
fundación


RENFEK ETA BEASAINGO UDALAK BIGARREN HITZARMENA SINATU DUTE:

"Pergolen atzeko bide berriarekin, erdigunean oinezkoek leku gehiago izatea nahi da"

Beasaingo Udalak eta Renfek bigarren hitzarmena sinatu zuten otsailaren 24an. Herriaren erdigunean Renfek erabiltzen dituen 6.000 m² inguru lur Udalaren esku geratu dira. Udala garatzen ari den proiektuaren arabera, Pergolak luzatu eta zabaldu egingo dira eta bidea Pergolen atzetik, trenbidearen ondotik, joango da. Jon Jauregi Beasaingo alkateak eman digu berri zehatzagoa.

1995ean sinatu zuen lehenengo hitzarmena Beasaingo Udalak Renferekin. Herri erdian Renfek erabiltzen zituen 8.760 m² lur Udalaren esku geratu eta Udala Renferi Bernedon karga-deskargarako merkantzia geltoki berria egiten ari zaio. Bi hilabete barru jarriko da martxan.

Otsailaren 24an, bigarren hitzarmena sinatu zuten. Udalak 23 milioi pezetaren truke Renferen 6.129 m² lur eskuratu ditu. Metro hauek guztiak, Pergolak luzatu eta zabaltzeko, eta bide berria egiteko erabiliko ditu Udalak. Aurreproiektua prestatzen ari da Beasaingo Udalako Gobernu-batzordea. Laster batean proiektua egin eta maiatza-ekainerako lanak hastea espero dute.



Beasaingo erdigunearen aurreproiektua.

Oinezkoak

Erdigunean oinezkoek leku gehiago egitea, aparkaleku gehiago egitea eta trafikoa kanpoaldetik bideratzea dira proiektuaren helburuak. "Motel xamar dabilen Beasaingo komertzioari esku bat botatzea" ere kontutan hartu dute, Jon Jauregi alkateak esan digunez. "Geltoki inguruan oso aparkaleku gutxi dago. Komertzioa ere bazu dabil. Orduan helburua da zentru komertzial handi bat bezala egitea, iritsi eta aparkalekua bertan izan dezatela erosleek. Bernedon aurrean aparkaleku tarte bat txukundu egingo da. Orduan, hiru aparkaleku jartzea da gure asmoa: Eskisabel, Bernedo eta Pergolak. Pergoletako obra hauen ondorioz 130 bat ibilgailurentzako aparkalekuak izango lirateke".

Pergoletako ibilbide guztia oinezkoentzako izatea aurrirakusten du proiektuak. Oinezkoek izango dute lehentasuna. Hori bai, karga-deskargarako eta garageak dituzten bizilagunentzat bide zati bat egongo da. Per-

golak luzatu eta zabaldu egingo dira. 32 metroko zabalera izango du eta Indarerraino luzatuko da. Paseorako, egonaldirako eta jolasarako guneak izango ditu. Bide gorria ere jarri nahi da. Aurrerago begira, Kale Nagusia ere oinezkoentzat bakarrik jartzea da asmoa.

Gauzak honela, bideak Pergolen atzetik joan behar luke, Joan Iturralde kalearekin bat egin arte. "Trafiko adituentzat oso ideia ona da bidea Pergolen atzetik, trenbidearen ondotik, bideratzea". Norabide batekoa edo bikoia izango den, oraindik zehazteko dago. Baina biko neurrikoa egingo dute, zehazten denean arazorik egon ez dadin.

Bide berrirako sarrera momentuz geltokitik egongo litzateke. Baina etorkizunari begira, bada beste proiektu bat. Geltokitik Indarrera bitartean konstruktore pribatu bat lanean hasiko da maiatza-ekainean. 100 etxebizitza egingo ditu; batzuek babes ofizialekoak. Pergolak luzatzeko ardura dauka promotore honek.

Era berean, eraikuntza gune berri honen atzetik bidea joango da, Pergolen atzeko bidearekin bat egin eta Igaratzako bidegurutzean bukatuko litzatekeena.

Geltokia

Geltoki ingurua ere aldatuko da. Taxiak, autobusak eta oinezkoak hartu nahi dira kontuan proiektua behar bezala gauzatzeko. Jauregik azaldu digunez, puntu honetan oraindik kezka asko daude, "autobus geltokiarekin eta bide berriarekin oinezkoek lehentasuna galdu egingo bailukete". Dena den, autobusentzako aparkaleku txiki bat, 6 taxirentzako lekua, eta geltokira bidaiariak uztera edo jasotzera doazen autoentzat bidetxo bat aurrirakusten dira.

Renfek bere aldetik, Udalarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz jasotako 23 milioirekin, Beasaingo tren geltokia hobetuko du. Batetik, lurrazpiko pasalekua egingo du, eta bestetik, kafetegi bat. Aldi berean, Renfek trenbide zati bat ere aldatu beharko du.

MAIDER MURUA, XABIER ARSUAGA ETA JOSEBA ELGARRESTA ARTZAIN IKASTEN: "Artzain Eskolarekin artzantza ogibide bat bezala hartu nahi da"

Arantzazun sortu berria den Artzain Eskolan ari dira sei hilabeteko ikastaroa egiten Maider Murua itsasondoarra, Xabier Arsuaga ordiziarra eta Joseba Elgarresta gabiriarra. Gazteak dira hirurak, 16-19 urte bitartekoak. Familiako tradizioari eutsiz, artzantzaren bidea jarraitu nahi dute. Horretarako, azken berrikuntzak ikasten eta praktikan jartzen ari dira.

Artzain familiakoak dira Maider, Xabier eta Joseba gazteak. Maiderren sendiak Itsasondon dute negurako ikuilua eta udan Aralarra igotzen dituzte ardiak. Xabier eta bere sendia ikuilu berria egiten ari dira. Ingu-



Artzain Eskolako irakasle eta ikasleek GOIERRITARRAn atera nahi izan zuten.

ruko lursailetan ibiltzen dira euren ardiak. Josebaren etxean inbertsio handiak egindakoak dira ikuiluan eta inguruko zelaian ibiltzen dira euren ardiak.

Ardi artean hazitakoak dira hirurak. Betidanik bizi izan dute hirurek artzantzaren mundua gertu-gertutik. Afizioa badutenez eta ogibidea gustatzen zaienez, Artzain Eskola izena eman eta arlo teorikoa praktikoa erekin bateratuz, artzantza

munduko azken berrikuntzak ikasten ari dira. Ehun mila pezetako matrikula ordaindu behar izan dute baina ikasturte bukaeran guztia gaindituz gero, itzuli egingo zaie diru hori. 6 hilabeteko ikastaroa da. Hilabete eta erdi teoria eta gainerakoa praktikak. Arantzazun arlo teorikoa lantzen dute. Praktikak, aldiz, artzainen etxeetan egiten dituzte.

Joseba Berastegin dabil praktikatan. Orain dena den

hanka hautsia dauka eta "oporretan" dago. Maider Josebaren Gabiriako etxean dabil, bere ama den Amelia Jauregi artzainarekin. Eta Xabier bere etxean dabil, ikuilu berria egiten ari direnez nahikoa lan baitute bertan.

Besteen etxeetan ardiekin nola lan egiten den ikastea dute helburu. Maiderrek zehaztu digunez, etxe gehienetan ardien maneja berdintsua izaten da, baina ikuiluetan egindako inbertsioetan alde handia dago. Josebaren etxean esaterako, azpietarako etxean parrilak dituzte eta jana ere zintan ematen die.

Artzain eskola sortu izana guztiz positiboa ikusten dute. Etxean ikasi dutenaz gain, eskolan zerbait gehiago ikasteko aukera baitaude. "Teknika berriei artzain lana geroz eta errazago izatea nahi da. Zenbat eta aurrerapen gehiago, lan gutxiago eta beste gauza batzuek egiteko lan gehia-

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea

☎ 80 60 66

LEGORRETA



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15

☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

go". Ardia gaixo egonez gero zer egin, elikadura nola zaindu, jaizteko erak, makina eta instalakuntza berriak ezagutu, garbitasuna, gazta nola egiten den... denetik ikasten ari dira.

Artzantzaren etorkizuna zertxobai ziurtatzeko, ahal diren neurrian, berrikuntzak sartzea beharrezkoa ikusten dute hirurek. "Gaur egun gainera, sanidadeak geroz eta gehiago exigitzen dute, batez ere ardiak eta pabeloiak beheran dituztenei", adierazi du Xabierrek. Garbitasuna oso garrantzitsua omen da.

Ikasitakoa bakoitzak bere etxean praktikan jarri nahi du lehenbailehen. Xabierrek esaterako, genetiko-ki, ardiak hobetu nahi ditu. Maiderrek, Josebaren etxean bezala, janaria emateko zinta mekanikoa esaterako. Josebak punta-puntako berrikuntzak ditu jarrita etxean eta orain, gastatutakoa berreskuratu nahi du.

Lehenengo eskola

Lehenengo eskola da Arantzazukoa. "Belaunaldi transmititu den ofizioa izan da artzantza. Eskola honekin ofizio bat bezala hartu nahi da artzantza. Azkeneko gauza izango balitz bezala hartua da artzantza, burla bezala egiten zen. Baina artzantza beste ofizio bat da", dio Maiderrek. Xabierren esanetan, dirua ateratzeko beste era



Xabier Arsuaga, Joseba Elgarresta eta Maider Murua artzain gazteak Arantzazuko eliza atarian. Artzainak izatera animatu nahi dituzte gazteak.

bat gehiago da artzantza.

9 ikasle dabilta Artzain Eskolan eta Maider da neska bakarra. "Eskolan bakarra naiz baina emakumezko artzain asko daude. Josebaren ama ere hor dago, berak darama guztia", argitu du Maiderrek. Josebak gaineratu duenez, "neskek mutilek bezala, berdin-berdin dute lekua. Betidanik ikusi da artzaina gizonetzkoa izan dela. Baina berdin-berdin izan daitezke artzain neskak eta gaur egun ere badaude emakumezko artzainak". Maiderrek gogoratu nahi izan duenez, "beti esaten da esne jaizten eta gaztak egiten emakumeak hobeak gare-

la". Xabierren esanetan, "artzantza beti lan zaila bezala ikusi da baina ez da hainbeste. Maina edo mar-txa hartzea da kontua".

Artzain zaharreneen mentalidadearekin egin dute to-

"Teknika berriekin artzain lana geroz eta errazagoa izatea nahi da"

po gazteek. "Nolako artzainak aterako garen galde-tzen dute. Pentsatzen dute eskola batean ezin dela artzain izaten ikasi, betidanik belaunaldi belaunaldi pasatu den ogibidea izan baita. Baina guk eskolan praktika asko egiten ditugu eta hori oso garrantzitsua da", diote.

Gogorra baino gehiago, oso lan lotua omen da artzantza. "Ez da zortzi ordu segidan sartu eta kitto. Artzantzaren gauzak lasaia hartzen dira, nahiz eta egun guztia ardientzako eduki". Hori bai, parrandako betarik ere hartzen dute, "gauean ez dago ardiei kasurik egin beharrik eta", diote parrez. "Lehenagokoek ere parrandak egiten zituzten", gaineratu dute.

Udan artzainak ondo bizi dela esan ohi da. Baina gazteek ez diote horrelakorik. "Udan ere lan asko izaten da, negurako belarra sartu behar baita. Orduantxe egoten gara agian okupatu-enak. Eguraldi txarra dagoenean bai, baina bestela oso lanpetuak ibiltzen gara", adierazi dute.

Gaztak egiten ikasten ere ari dira gazteak. Etxekoek egiten dituzte gaztak, eta datorren urtean hasiko omen dira ikasitakoa praktikan jartzen. Lanik errazena eta gehiena ematean duena gazta omen da artzantzaren. Xabierren ilusioa, Ordiziako Gazta Txapelketa irabaztea da.

Eskola garai honetan "oporretan" omen daude. Eskola sortu den honetan, gazteak artzain izatera gonbidatu nahi dituzte.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Itsasondoko Udala: "Oria ibaiaren bideraketa orain"

Zegamatik Orioraino Oria ibaiaren bideraketa lanak eginda daude, Itsasondoko izan ezik. Historian zehar eta 1983ko abuztuko uholdeetan kalte handiak izan ziren Itsasondoko. Beko-kaleko hainbat etxetara ura sartu zen. Etxeren ere eraman omen zuen. Eragindako kalteak ikusirik, Gipuzkoako Diputazioak Oria ibaiaren bideraketa lana gauzatu beharra ikusi zuen. Eusko Jaurlaritzak 1995ean obra presazkoa deklaratu zuen. Proiektua onartu dago, baina dirurik ez da iristen Itsasondora, nahiz eta desjabetza edo espropiazioak egin dituen Udalak.

Egoera salatzeko prentsaurrekoa eman zuten otsailaren 25ean Itsasondoko Udaleko Alkate eta zinegotziek. Bertan gogoratukoaren arabera, Oria ibaiaren ur-bideraketaren proiektua egiten hasi ziren 1983ko uholdeetan izandako kalteak ikusirik. 1990. urterako Itsasondoko Udala 'Confederación del Norte de España' rekin harremanetan ze-



goen, Itsasondoko zeharkatzen zuen Oria ibaia bideratzeko behin-betiko proiektua erredaktatzeko tramiteetan. 1993an onartu zen proiektua eta obrak finantzatzeko % 75eko aportazioa ematea erabaki zuen.

Presazko lana

Hurrengo urteetan, zenbait gestio egin zituen Itsasondoko Udalak, besteak beste, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan, eta 1994ko maiatzaren 3an egindako batzarrean, Itsasondoko Udalak okupatu beharreko terrenoak eskuratzeko hartutako konpromezua betetzeko, derrigorrezko desjabetzapen edo espropiazio espedienteari hasiera ematea erabaki zuen. Ondasunen zerrenda egin eta Eusko Jaurlaritzari obra presazkoa deklaratzeko eskatu zitzaion. Horrela egin zuen 1995eko apirilaren 11n.

"Proiektuak enpresa bat botatzeko ekartzen du eta

beste bi enpresa ere afektatuak izango dira. Horrek suposatuko zituen kostoak handiak izango zirela eta, kubritzeko diru-laguntza lortzeko bideak bilatu beharra ikusi zen. Aldundian zenbait bilera egin ondoren eta hitzez diru-laguntzak emateko posibilitatea izango zela adierazi ondoren, lehen ere kasu berdin batean, enpresa bat botatzeko kostoak Aldundiak bereganatuko zituelako, Aldundiak emandako aholkuak jarraituz, Itsasondoko Udalak okupatu beharreko ondasunak eskuratzeko desjabetza espedientea hasi zuen", argitu du Jose Mari Otegi Itsasondoko alkateak.

Itsasondoko Udalak aurrera eraman du desjabetza eta kaltetutako lur-jabeei ordaindu ere bai. Gaur arte 25 milioi ordaindu ditu eta beste 48 milioi ordaintzeko dauzka.


Gauzak honela, Otegi

salatu duenez, "hamabost urte pasatu dira eta hainbat bilera eginda gero, oraindik ez digute esan noiz egingo den obra hori, eta okerragoa da noiz egingo ote den ez dagoela jakiterik". Itsasondoko, aurrekontu txikia duena, zorretan leporaino sartu omen da, ustez proiektua aurrera eraman eta Oria ibaiaren bideraketa egingo zelakoan. "Baina ikusi dugu urteak pasa eta Eusko Jaurlaritzari Itsasondoko herria ez zaiola batera ajola, beste leku batzuetarako behar dute dirua. Ezin duguna ulertu zera da, nola litekeen horrelako zorretan herri txiki bat sartu eta gero obra hori ez egin, eta noiz egingo den erantzunik ez ematea", gaineratu du Otegi.

Erantzulea nor?

Udala eta herri guztia oso sentsibilizatua eta haserre omen dago, Itsasondorekin edukitzen ari diren jokaerarekin. Aurtengorako Eibarako, Astigarragako, Zegamako eta Bergarako ur-bideraketako obrak onartuak izan dira, "eta gure arazoa hain handia izanik, aurten ere ez dute aipatzen".

Egoera honen aurrean, zera adierazi du Otegi alkateak: "Ez dedila gertatu, baina egunen batean uholderen bat eta ezbeharren bat gertatuko balitz, ikusiko genuke zein izango litzatekeen arduraduna".



ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxa: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ITSASONDO

Herritarrek haserre eta kezkatuta Renferen erabakiaren aurrean



Otsailaren 13an, Itsasondo, Ormaiztegi eta Ikaztegieta-ko alkateak Goiekin bildu ziren Renfeko ordezkari-ekin. Hemendik aurrera tren-herrian gelditzeko jarri di-
tuzten arau berriei buruz hitz egin zuten. Araudi be-
rriak dioenez, tren-Itsason-
don gelditzeko eskuarekin
alto egin behar dio tren-
hartu nahi duenak. Itsason-
don jaitsi nahi izanez gero,
berriz, kobratzaileari jak-
inarazi beharko zaio.

Herritarrek egoeraz kez-
katurik, herri-batzarra izan
zen otsailaren 23an, herriko
gazteek deituta. Jende asko
bildu zen bertan. Talde bat
eratu zen, aurrerantzean zer
egin erabakitzeke eta neurri
horien aurkako proposame-
nak egiteko. Bitartean hiru
herri kaltetuen arteko koor-
dinazioa hasi zen, eta ekin-
tza berdintsuak garai berean
egitea planteatu zen. Hala
nola, Udaletxean mozioak

sartzea, sinadura biketa,
prentsaurrekoa eman eta hi-
ru geltokietan konzentrazio-
ak egitea.

Udaletxean aurkeztu zen
mozioak egoera salatu, eta
Ormaiztegi eta Ikaztegieta-
rekin batera, neurri batera-
tuak hartzea erabaki zen.
Besteak beste, hiru herrie-
tan jasotako sinadurak Ren-
fek Irunen duen egoitzara
eramatea; martxoaren 11n
hiru udal ordezkariak pren-
tsaurrekoa ematea, ezarri
nahi den egoera salatzeke;
eta martxoaren 14an, eguer-
diko 12etan, hiru geltokie-
tan konzentrazio bana buru-
tzea, herritarren haserre-
a azalduz.

Herrian sortutako taldea
asteazkenetan biltzen da.
Batzuk Renfeko sindikatu-
ekin harremanetan daude.
Beste batzuek, antzeko ego-
era bizi izan duten herrieta-
ko informazioa jaso dute.
Adibidez, Arabako Araiako

Herritarren salaketa

Jarraian duzuen idatzia da hainbat herritarrek sinatu eta
Renfera bidali dutena. Herritar askok sinatu dute salaketa.

“Otsailaren 23tik aurrera Renfek Itsasondoko herrita-
rrengan eragin zuzena duen erabakia jarri du martxan.
Aurrerantzean, tren-
a ez da orain arte bezala gure gel-
tokian berez geratuko. Apeaderoan inor ez badago, tren-
a ez da geldituko. Berdin gertatuko da norbaitek Itsasondon
jaitsi nahi badu. Horrek esan nahi du:

- Tren-
a geratzeko andenera atera beharko duela Itsason-
doko apeaderoan dagoen bidaiariak. Arrazoren bat
edo beste tarteko gidariak ikusten ez badu, tren-
a ez da
geldituko.

- Tren barruan datorrenak interbentorea topatu beharko
du Itsasondon jaitsi nahi duela adierazteko. Ibilbidean
hau topatzeko denborarik ez badu izaten, hurrengo gel-
tokira arte jarraitu beharko du, tren-
a ez da
geratuko
eta.

Honen guztiaren aurrean itsasondoarrok zera salatu
nahi dugu:

- Renfek erakutsi duen jarrera iluna: ofizialki inolako be-
rririk ez zion eman Udalari.

- Sor daitezkeen egoera arriskutsuak, bereziki adineko per-
sonentzat eta egunero tren-
a erabiltzen duten Gureak-
ekoentzat.

Zerbitzu murrizketa baten aurrean gaude, beraz. Beste
herrietakoek bezalaxe ordaintzen ditugu zergak, baina
egunez egun zerbitzua gero eta eskasagoa da herri txikie-
tan. Izan ere, behin eta berriro kalitatea bilatu nahi duela
dioen Renfek errentagarritasuna du helburu eman behar
lukeen zerbitzu publikoaren kaltetan. Herri txikiak gero
eta isolatuago uzten dituzte horrelako erabakiek. Orain
zerbitzu murrizketa da. Zein izango da hurrengo neurria?”

bailarakoa, egunean bi tren
bakarrik gelditzen dira. Az-
keneko bileran, Eusko Jaur-
laritzako Garraio Zuzenda-
riarekin egotea erabaki zen.

Azken ordua

Aldizkaria bukatzen ari gi-
nela, Udaletik jakitera eman
zigutenez, Renfek araudi
berria bertan behera utzi zu-
tela adierazi zuen hitzez.

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
880543 BEASAIN



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 88 86 84 BEASAIN

ZEGAMA

Kultur etxean inbertsio garrantzitsuak

Ekipamenduan inbertsio garrantzitsuak egin dira Kultur etxean. Azken bilerako erabakiak beteaz, batzordeak bertan herriko elkarteetako zerbitzura duen fotokopiagailua aldatzea erabaki zuen. Fotokopiagailu honen erabilpena, herriko elkarte desberdinen eskura dago; gaur egun Orkatz abesbatzak, Tobera Musika Eskolak, Elkartu Nahi T.E.ak, Amezi Elkartek eta Parrokiko Elkartek, erabiltzen dute gehienbat. Era honetara herrian dagoen zerbitzu hutsune bat betetzen du honek. Azpimarratzekoa da herritarrek 7 urte luzez

eman dioten erabilpen onean oinarritu behar dela zerbitzu honen iraupena, izan ere, jaberik gabeko fotokopia gutxi agertzen baita.

Beste inbertsio garrantzitsu bat, informatikako ekipo bat erosiz burutu da. Kultur etxeko batzordearen erabakiz eta Udalak Kultur etxeko ekipamendurako zuen partidari lotuz, erosi da ordenagailua. Aurtengorako ere, Udalari beste hurrenbeste eskatzeko asmoa dago, ordenagailu bakar batekin herritarren zerbitzua eskaintzea nahiko urria ikusten baita. Ekipo hauen

erabilpena herritarrengana zein erataraz zabaldu behar den oraindik lotu gabe badago ere, hurrengo bileretako gai nagusienetakoa izango da.

San Bartolome jaiak

Gaur ostirala, martxoak 13, iluntzeko 7etan lehen bilera irekia egingo da udaletxean, San Bartolome jaiak antolatzeko. Bilera irekia da.

Odol ematea

Bihar larunbata, martxoak 14, arratsaldeko 5,30etatik aurrera, Jubilatuen elkartearen bilduko dira odol emaileak. Adierazi digutenez, odol

emaile berriak ere pozik hartuak izango omen dira.

Eskolarteko kirola

● **Txirrindularitza:** Martxoaren 8an, Urmietan jokatuko ziren lasterketetan, Ruben Zabaleta mutil alebinitan garaile izan genuen eta gauza bera esan genezake Aritz Irastorza buruz, infantil mailan.

● **Ibilaldi neurtua:** Martxoaren 15ean, Beasainen izango den ibilaldi neurtuan ere eskolako talde bat izango da. Animatzen bazarete, irteera 8,15ean izango da.

Edurne Albizu

EZKIO-ITSASO



'Agerre Aundiri Laguntzen' batzordeak, abenduaren

15ean erretako bi etxebizitzako base-riaren aldeko ekin-tzei, bertso-jaialdi handi batekin amaiera eman nahi die. Ekitaldian Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Sarasua, Jesus Mari Irazu eta Mikel Men-

Agerre Aundiren aldeko bertso-jaialdia

dizabalek parte hartuko dute. Gai-jartzailea Iñaki Murrutia izango da eta Zumarragako Beloki pilotalekuan, bihar, martxoak 14, gaueko 10,30etan ospatuko da.

Iturbe eta Elorza trikitilariak ere bertan izango dira. Jaialdian, gainera, milioi laurden edo txekorraren

zozketa egingo da, hau da, hilabete hauetan zehar saldu diren zozketa-txartelen saria. Irabaziak Agerre Aundiri laguntzeko izango dira eta jendearen erantzun eskuzabala eskertzen dute bai batzordeak, bai kaltetuek.

Pilare Mujika



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

GAI ORDENA:

- 1.- Aurreko aktaren irakurketa.
- 2.- 1997ko diru kontu ematea eta onespena.
- 3.- 1998ko aurrekontua aurkezpena.
- 4.- Kargu berritzeak.
- 5.- Norberak leharkeena.

NOIZ: martxoak 27

NON: GOIERRITARRA aldizkariaren bulegoan (Ordiziako Dorretxean)

ORDUA: arratsaldeko 7etan.



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 88 58 48 - 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

BEASAIN

'Udaberri Gaztea' martxoaren 23tik apirilaren 5era

Gazte Asanblada, Kimuak eta Gure Eskuetan gazte taldeek Udaleko eta Diputazioako Gazteria eta Kiroletako sailekin batera, bigarren aldiz 'Udaberri Gaztea' antolatu dute. Martxoaren 23an hasi eta apirilaren 5era bitartean hainbat ekintza izango da. Besteak beste, hitzaldiak, magia ikastaroak, 2 kontzertu, antzerkia, erakusketak eta Gazteenkana.

Gazteenkana jolas izaerako olinpiada herrikoia da. 15-29 urte bitarteko 4 gazte osatutako taldeek hartu behar dute parte, 6 frogetan. Martxoaren 25a baino lehen eman behar da izena. Sariak izango dira lehenengo hiru taldeentzat. Informazio gehiago 887900 telefonoan duzue.

Martxoaren 23tik 27ra bitarteko ekintzak hauexek dituzte:

Martxoak 23, astelehena: 'Aisialdiaren Kontzeptu eta Azterketa' gaiari buruzko hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean. Hizlaria: Olatz Altuna (Urtintxa taldeko soziologa).

Martxoak 25 eta 26: Magia ikastaroa, Toni Mercuriren eskutik, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean.

Martxoak 27, ostirala: 'Mari Cruz Soriano y los

que le afinan el piano' taldearen kontzertua, Udaletxeko Enparantzan, 23:00-etan.

Loinatzak prestatzen

Hasi dira Loinatz jaiak prestatzen Udaleko Jai batzordean. Elkartek, partikular edo lagun-talde guztiei irekiak dago batzordea. Helburua, jaiak ahal den era onenean antolatu eta bultzatzea baita.

Era berean, Loinatz Jaie-tako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa martxan da. Lanetan beharrezkoa da 'Beasain, 1998ko Loinatz Jaiak. Maiatzaren 22tik 31ra' azaltzea. Martxoaren 27a baino lehenago aurkeztu behar da eta saria 50.000 pezetakoa izango da. Informazio gehiago Kultura Sailean.

Eranskailu lehiaketa

Ai Geala euskara taldeak indar berriz ekitea erabaki du hainbat bilera egin ondoren. Gauzak honela, euskararen erabilera aldarrikatu-ko duen esaldirik onenaren bila dabil Ai Geala, Loinatz jaietarako eranskailuak edo pegatina ateratzeko. Lehiaketa bi mailatan banatuko da, 12-18 urte bitartekoena eta 19 urtetik gorakoena. Hamarna mila pezetako saria emango zaie bi mailetako irabazleei. Apirilaren



Alkartasuna Lizeoan kirol instalakuntza berriak

Otsailaren 27an inauguratu ziren Alkartasuna Lizeoko kirol instalakuntza berriak. Berrikuntza hau posible egin duena lurren saneamendua izan da. Mendiko lurretik ura eta lurra sartzen zen futbol zelaian eta pilotalekuan. Gauzak honela, lur-jabeei lurra erosi eta urak behar bezala bideratu dituzte. Obrak aprobetxatuz, gerta daitekeen edozein larrialdi erantzuteko, pista ireki dute Usurbeko bidetik Lizeora. Lurrari eusteko 160 bat zuhaitz landatu dituzte inguruetan. Egoera aprobetxatuz, kirol instalakuntzak txukundu eta berriak dituzte. Inaugurazio ekitaldian, Jon Jauregi alkatea, inguruko ikastetxeetako zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkaria, Fernando Caño, izan ziren. Alkartasuna Lizeoan antolatu zuten kultur astearen barruan egin zen inaugurazioa.

19a baino lehen Ai Gealaren Beasaingo 78 posta-kutxara bidali behar dira lanak. Sari-banaketa maiatzaren 9an egingo da, goizeko 11etan, udaletxean.

Arrano Mus lehiaketa

VIII. Arrano Mus lehiaketa jokatu da bihar, martxoak 14, arratsaldeko 4,30etan,

Arrano elkartearen. Ordubete lehenago, 3,30etan, eman behar da izena, 3.000 pezetaren truke. 4 erregeetara jokatu da. Sariak: 1. arentzat 120.000 pezeta eta txapela; 2. entzat, 60.000; 3. arentzat, 30.000; 4. arentzat 15.000 pta. eta herriko lehen bikotearentzat 2 txuleta.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

JYLKI GOZODENDA
Orain

Goikil

Nafarroa Etorbidea, 19 ☎ 88 40 29

GOIAGI OBINDEGIA
elkarrekin

BEASAIN

Egurrezko labean
egindako
ogi gozoa

"Beasaingo Martintxoak"

Hello friends!

This is Michael Morris, an English teacher.

Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.

Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.

Connecting Basques and the world.



**Euskara-Ingelesa ●
Ingelesa-Euskara
Hiztegia:**

1.200 orri ●

**80.000 hitz ●
eta adiera**

**Eranskin ●
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak ●
eta bestelako
ikasmateriala**

**Ingalaterrako ●
nahiz EEBBetako
ingelesa
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + **Egunkaria****

LAZKAO

Emakumeen Eguna ospatuz



Joan den igandean, martxoak 8, Emakumeen Eguna ospatu zela eta Lazkaon zenbait ekintza burutu ziren. Lehenengo ekintza larunbatean, martxoak 7, burutu zen. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek antolatutako erakusketa bat egin zuten herriko emakumeek, beraiek egindako eskulanekin. Lanak erakustez gain, herriko plazan bertan jardun zuten eskulan hauek egiten.

Erakusketan honako lan hauek zeuden, koadroak, alfombra, gorrak-landak (gantxiloa), puntuz egindako lanak, egur pintatuak eta

baita kotoizko arropa pintatuak ere.

Bestalde Azki emakume taldeak ere bere ekintzatxoak burutu zuen joan den asteburuan. Talde honek antolatu zuen afa-

rian, herriko hainbat emakumek elkar hobeto ezagutzeko aukera izan zuten eta bide batez baita afa-der bat igarotzeko modua ere.

Udalbatza Zuekin

Udalak herritarrei informazioa banatzeko duen *Udalbatza Zuekin* aldizkariaren 15. alea aterata da. Ale berriari hainbat informazio aurki daiteke, etxebizitza sozialei buruzkoa, zakurrei buruzko ordenantza edo herri bide eta pistei buruzko ordenantza berri ere bai.

Eskolarteko Kros Txapelketaren emaitzak

Martxoaren lehen Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa burutu zen Lazkaon. Hauek dira emaitzak:

Kadeteen maila izan zen partaide gutxienez izan zituena, mutiletan 27 eta nesketan 10 hain zuzen. Mutiletan, lehenengo Mikel Mutuberria Bidasoa Atletismo Taldekoa izan genuen eta nesketan berriz Aloña Gonzalez izan zen txapelduna, Bidasoa Atletismo Taldekoa hau ere. Bi lasterketa hauetan Lazkaoko ikastetxetako ordezkariak ez genduela izan.

Infantilen mailan partaidetza haundixeagoa izan zen, mutiletan 66 eta nesketan 52 korrikalari hain zuzen. Maila honetako txapeldunak Arkaitz Nogales Iraurgi Ikastetxekoa eta Maitane Jauregi Orixe Ikastolakoak izan genituen. Maila honetan San Benito Ikastolako 6 korrikalarik parte hartu zuten, 5 mutilek eta neska batek. Hauetatik onenak Unai Etxarri eta Ana Sanz Gaztañaga izan ziren 18 eta 20. postuetan. Taldeko San Benito Ikastola 6. izan zen infantil mutiletan.

Korrikalari kopuru handiena alebin mailan izan zen, mutilen lasterketak 117 partaide izan zituen eta neskenak berriz 59. Lasterketa hauetako txapeldunak ondorengo hauek izan ziren, mutiletan Muñagorri Ikastetxeko Iban Agirrezabala eta nesketan berriz Xabier Munibe Ikastetxeko Olaia Bikendi. Lazkaotarrak ere dextente izan genituen maila honetan, 18 mutil eta 10 neska. Asier Parra 15. postuan eta Maitane Aldasoro 20. ean izan ziren lehenengoak.

Urko Irastorza Koldo Urrestarazu

IDIAZABAL

Festak: oro har ondo

Sanblasak bukatu zirela hila bete pasatu den arren, otsailaren bukaeran egin zuen festa komisioak 98ko Sanblasen balantzea. Festak oro har ondo joan direla jakinarazi zuen Festa komisioak. Gauean, plazan jende gutxi bildu dela azpimarratu zuten, bestelako ekintzetan, ordea, jendeak parte hartu duela ere aipatu zen.

Diru kontuei dagokionez, aurikusitakoa baino zertxobait gutxiago gastatu da aurtengo festetan.

Izara bilketa

Espero baino izara gehiago

bildu zuen Kinbela taldeak otsailaren 29an herrian egindako bilketan. Guztira 180 izara joku bildu zituzten eta jendeak eramandako pieza solteekin beste lau kaja bete ziren.

Bildutako izarak Caritassen esku utzi dituzte eta erakunde honek helaraziko ditu bildutako gauza guztiak Badajozera.

Egonaldiak familia euskaldunetan

HABEk urtero bezala euskara ikasi edo hobetu nahi dutenentzat udarako egonaldiak antolatu ditu aurt-

ere. Idiazabalen urtero izaten da programa horri segiz uda gure herrian ematen duen norbait.

Etxean euskara ikasleren bat hartu nahi dutenek, ondoko baldintzak bete behar dituzte: familiako kideen arteko ohiko hizkuntza euskara izatea, ikaslearentzat gela bat prestatzea eta hila-beteko ikasle bakarria hartzea.

Kanpaina honetan parte hartu nahi duenak udaletxean du horretarako dokumentazioa eta dirulaguntzen berri. Eskabideak jasotzeko

epea martxoaren 20an bukatuko da.

Gaztaren jaia

Herrian gaztaiaren inguruan lan egiteko sortu zen batzordea maiatzaren 3rako gaztaren inguruko jaia antolatzen ari da. Egun horretarako egitaraua zehazten eta antolatzen ari dira orain. Talde horrek prest du bestalde herriari buruzko informazioa biltzen duen triptikoa. Herriko argazkiak eta informazioa daude bilduta bertan.

Xabier Urteaga

SEGURA

Martxan da III. Iparra-Hegoa

Iazko Iparra-Hegoa.



Martxoaren 26tik 29ra burutuko den Iparra-Hegoarako zenbait gauza zehaztea falta bada ere, hona aurrez, antolatzen ari diren ekitaldien berri:

Osteguna, 26: Seguran garai batean jokatu izan zen eta Iparraldean oraindik jokatzen den erreboteari buruzko tresnen erakusketa, gaiari buruzko diaporama, bideoen proiektzioa eta hitzaldi-solasaldia Zubietako eta Iparraldeko zenbait errebotelariarekin. Kultur etxean, 19:00etan. **Astebururako:** haur jolasak, hitzaldiak, kantu saioak, futbola, pelota, sokatira, kale animazioa, kontzertuak, txistulariak, txaranga, herri azoka, Iturango joaldunak, dantzariak, gerizondoaren inguruko ekitaldia, herri bazkaria, mutxi-koak... Hurrengo alean informazio gehiago.

Honetaz gain, astean zehar, beste 3 erakusketa ere antolatuko dira: **Euskal arte garaikidea:** 15 euskal artisten pintura eta eskultura lanen erakusketa 2 astez, Jesus Jauregiren arte galerian. **Argazkiak:** Segurako eta Iparraldeko paraje nahiz ospakizunena. **Tresneria:** gaur egun erabilpena galdua duten etxe, eliza nahiz baserri tresnen bilduma.

Honi guztiari aurre egiteko, errifak atera dira eta

Udalaren, herriko tabernen eta Kutxaren laguntza ere espero da.

Jubilatuak

Martxoaren 15ean, meza nagusiaren ondoren, izango dute herriko jubilatuak urteko

batzarra eta mokadutxoia Atsedenen. Bertan, batzordea berritzeaz gain, urteko memoria eta aurrera begirako plana aurkeztuko dituzte. Urtean zehar burutzen dituzten ekintzen artean ondorengoak pasa dizkigute: herri, eskualde, herrialde zein estatu mailako batzordeetan eta zenbait ikastaro eta hitzalditan partaidetza, karta eta sukaldaritza txapelketak antolatzea, herriko jaietan jokuak, ibilaldi neurtuak, adinekoentzat hitzaldiak, jubilatuak egunak, txangoak, eskulanak, sukaldaritza, soinketa eta lorazaintza ikastaroak, elizako koruan, dotriñan, konfirmazioetan eta batzorde ezberdinetan partehartzea, ospitaleko zaharrei zein gaixoei konpainia eta laguntza...

II. Gazte topagunea

Jarraik antolatuta, martxoaren 18tik 21era, Seguran, Zegaman eta Idiazabalen burutuko da. Informazio gehiago 10. orrialdean.

Kirol eskolarra

Krosa: martxoaren 1eko Gipuzkoako txapelketan, alebinetan, 8. egin zuen Eneko Agirrezabalek eta infantiletan 17. Garbiñe Etxezarretak. Martxoaren 15ean Andorran korrituko den krosean, infantiletan Garbiñe Etxezarreta eta Iker Agirre-

zabal eta alebinetan Eneko Agirrezabal arituko dira Goierriko selekzioarekin.

Tenisa: neska alebinek Goierri mailako finala jokatuko dute martxoaren 14an Beasainen, Murumendikoen aurka. Mutil alebinak, martxoaren 7an finalerdietako lehen partidua irabazita Goierri mailako finalerako bidean dira. **Pelota:** martxoaren 6an, Beasaingo Alkartasuna Lizeokoei 18-17 irabazita partidua bakarra falta zaie mutil infantilei finaleko fasean sartzeko. **Mendi taldea:** martxoaren 15ean, eskualdeko ibilaldi neurtua izango dute Beasainen. Irteera, 8:15ean plazatik.

Futbola

Asteburuko emaitzak:

Errejonak: Segura 7-2 Urola. **Jubenilak:** Segura 1-0 Añorga. **Kadeteak:** Aizkorri 4-0 Antonianoak. **Infantilak:** Koskas 5-1 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri-Gure Txokoa, zapatuan, 17:00etan. **Kadeteak:** ligan igoerarako ez sailkatu eta Gipuzkoako kopan parte hartuko dute. Aizkorri-Beasain, jaien, 16:00etan.

Labur-labur

● **Pelota:** Intxaurrendoko VII. Torneoko emaitzak: Jubenilak: Urruzola-Elola 22-12 Inge Olano-Goikoetxea. Seniorrak: Mikel Perizena-Ibon Etxeberria 22-8 Laskurain-Bidezabal.

● **Ermittak:** elizako batzordeak, herriko ermiten egoeraren berri jasoko du berrikuntzaren bat behar baldin badute. Ostiral Santuko kalbarioa eta hazi bedainkatzea gerturatzen ari direla eta, Santa Engraziko ermita dira pintatu eta txukuntzen



1997ko kobraketa

San Jose kofradiaren kobraketa

Martxoaren 19an, goizeko mezen ondoren ospitalpean jarriko den mahaian egongo da Laureano Telleria, San Joseren kofradekideei urteroko kobraketa egiteko. 12:00etako meza, urte barruan hildako kofradekideen aldekoa izango da. Herriararen %90a dagoen kofradia honek, ia 300 urte ditu eta urtero 10 pezeta ordainduta, kofradekidea hiltzean meza ateratzen zaio.

hastekoak lehenengo.

● **Aste Santua:** martxoaren 14an hasiko dira elizan, zapatuetan eta astelehenetan burutuko diren soldadu erromatarren korneta entsaioak. Korukoak ere laster dira hastekoak. Horretaz gain, jantziak berrikusten eta konpontzen ari dira eta martxan da egitaraua eta propaganda ere.

● **Errealaren peña:** martxoaren 30ean dute 'Txanbolinpe' peñaren aurkezpen ofiziala egiteko asmoa errealeko 4 jokalariekarrita.

● **Txirrindulari Elkarteak:** urteroko gastuei aurre egiteko errifa atera dute. Tabernetan salgai.

Joseba Telleria

ORMAIZTEGI Herritarrak desados Renferen erabakiarekin

XIX. mendean, 'Norteko' tren sarea martxan jarri zenetik geltokia izan du Ormaiztegik. Trenak martxan jarri zirenetik urte askotan zehar gure herriko geltokiak garrantzia handia izan du. Trena Ormaiztegiko eta inguruko herrietako garapen ekonomikoaren oinarrietariko bat izatera iritsi zen, eta ordutik gaur egunerarte trena komunikabide garrantzitsuenaren izan da. Gaur egun Ormaiztegiko tren geltokiko erabiltzaile kopurua handia izan arren, Renfek orain arte izandako zerbitzu motaren kalitatea asko jaisten duen araua ezarri du.



Geltokiaren bilakaera
Tren sarea ezarri zenetik mende honetarako herriko geltokiak estazio maila izan zuen. Bertako geltoki etxean faktorea eta bere familia bizi ziren, eta geltokiko ardurak beraiek aurrera eramaten zituzten. Baina urteak igaro ahala, gure herriko geltokia garrantzia galduz joan zen inguruko herri handiagoetako geltokien garrantzia handiagotu zuten eran.

Geltokiaren bilakaera

Orain urte batzuk estazio maila kendu eta apeadero maila ezarri zioten. Une hartan Renfek ezarri nahi

izan zituen arau batzuek ere herritarren desadostasuna jaso ondoren tren zerbitzua lehen bezala utz zezan lortu zen. Ondorioz gaur egunerarte Ormaiztegik izan duen tren zerbitzua oso ona izan da. Hain zuzen ordu erdiero trenak erabiltzeko aukera izateak, trenen puntualitateak, geltokia eroso izateak... erabiltzaile kopurua asko gehitu du.

Erabakiaren nondik-norakoak

Renfek harturiko erabakiaren puntu nagusiak ondorengoak dira:

1.- Ormaiztegiko geltokiak gaur egunerarte izan duen funtzionamendu normala bertan behera geldituko da. Hain zuzen gure herriko geltokian, trenak bidaia-riak daudenean bakarrik geldituko dira. Gainontzeko tren guztiek aurrera jarraituko dute geltokirik egongo ez balitz bezala.

2.- Renfek indarrean jarri

duen arauaren arabera, geltokira trena hartzeko asmoan hurbiltzen den bidaia-riak trenari besoa altxatuz alto egin beharko dio trena geldidarin.

3.- Trenetik jaitsi nahi duen bidaia-riak, berriz, Renfek arduradunen esanetan, ez

du inolako kezkarik izan behar tren kobratzailea etorri arte itxarotea besterik. Ondoren tren kobratzaileak makinistari trena Ormaiztegin gera dezan agindua eman beharko diolarik.

Beraz Renfek indarren jarri duen araudi berri honek Ormaiztegiko tren zerbitzua erabat desegoki bihurtzen du bereziki ondoren puntu hauek kontutan izanik:

1.- Geltokiari betidanik izan duen jatorrizko eginkizuna ezabatuz zerbitzuaren kalitatea erabat jaisten delako.

2.- Trenera igotzeko bidaia-riak trenari alto egin beharrrak arrisku handia sortzen duelako bereziki bidaia-ri kopuru handi baten artean, hain zuzen adineko eta gaztetxoaren artean.

3.- Trenetik jaisteko orduan, berriz, Ormaiztegin trena gera dadin tren kobratzaileak makinistari derri- gorrez agindu beharrrak,

ziurtasun eza sortzen du bidaia-rien artean. Nahiz eta Renfekoek tren kobratzaileak bere eginkizuna tren guztietan beteko duela adierazi, ezin daiteke hori erabat horrela izango dela ziurtatu.

4.- Ormaiztegiko tren geltokiko zerbitzuak herritarrez gain inguruko herrietako bidaia-riek erabiltzen dituztelako. Gaur egun bidaia-rien kopurua handia da.

Firma bilketa

Nahiz eta Udalak Renferi zerbitzu mota honekiko bere desadostasuna argi azaldu eta indarrean ez jartzeko eskatu, Renfek martxoaren laz geroztik asmoa zuen bezala martxan jarri du. Renfekoek esanetan zerbitzu mota hau hasiera batean sei hilabeteetarako proba moduan ezarri dute. Epe honetan erabiltzaileen alde- tik kexak jasoz gero, aurrerantzean zerbitzu hauek nola burutu pentsatu beharko dutela diote.

Beraz, Renferen aurrean presio biderik egokiena herritarren desadostasuna agertzea izango dela ikusi denez, firma bilketari ekin zaio. Dagoeneko 700 firma inguru bildu dira, eta oraindik firma eman nahi izanez gero, nahikoa duzue Udaltxean dagoen zerrendan egitea.

Aitziber Murua

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI

GESTORIA BIOK

ASEGURUOK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

URBITARTE sagardotegia



Erreserba telefonoa
18 01 19

Ergoiena Auzoa
ATAUN

ATAUN

Pagadien antolamendu plan berria



Ingurugiro arlotik datorkigu lehen berri hau: izan ere, martxoaren 4an egindako plenoan Ataungo pagadien antolamendu plana onartu baitzuen udalbatzak.

Ataunek 1.700 hektarea pagadi ditu eta horietatik 700 inguru dira herriarenak (udalarenak diren Marumendi eta Agauntza mendietan daudenak, hain zuzen). Azken urteotan, herriko pagadion egoerak txarre- ra egin du, kopuruan jaitsiz eta adinean zahartuz. Hortik antolamendu berri baten beharra (1989. urtekoaren helburuak bete ez direnez). Baina baso horiek Aralarko Parke Naturalean daude sartuta, paisaje balio handia dute eta ezaugarri fisiko jakin batzuk; horregatik, ezin dira nolanahi antolatu. Bes-

talde, alderdi ekonomikoa ere kontutan hartzeko da: pagadi horiek diru iturri garrantzitsuak izan baiditezke euren jabe- entzat.

Beraz, onartu berri den antolamendu plan honek hiru helburu hauek ditu gogoan: pagadien iraupena (zuhaitzen birsorketa eta kalitatea hobetuz), beren etekin jarraitua eta erabilpen ugartasuna (ustiaketa antolatuz).

IKT entpresak egin du plana eta bertan, aipatutako helburu horiek lortzeko, pagadia baso erregular modura antolatzea proposatzen du, hau da, pagadia zenbait zatitan banatu eta zati bakoitzean adin bereko pago- ak izan daitezela.

V. pilota txapelketa

Ataun Kirol Elkarteak antolatutako txapelketa honetan 3 modalidade hauek sartzen dira: palaz eta eskuzko modalidadeak binaka izango

dira eta 14 urtetik gorako gizonezkoei daude zuzen- duta; frontenisa ere binaka izango da, baina 14 urtetik gorako gizon nahiz emakumeek hartu ahal izango dute parte.

Palaz eta eskuzko parti- duak astelehenetan jokatu- ko dira eta frontenisekoak, berriz, ostiraletan eta larun- batetan. Finalak ekainaren 13an izango dira.

Parte hartu nahi duten bi- koteek martxoaren 14rako eman behar dute izena Au- zoeta udal kiroldegian (tel.: 180384), bikote bakoitzeko 2.000 pezeta ordainduz.

Labur-labur

● Joan zen astelehenean, hilak 9, **herriko feriak** bere lehen urtea egin du eta urte- betetze hori ospatzeko, azo- kan erosketak egiten dituz- tenen artean errifak banatu- ko dira (Ataungo Udalak bultzatuta). Errifa horietan, hain zuzen ere, arkume eder bat eta 10.000 pezetako erosketa zozketatzen dira.

● Aste honetan jarri dira martxan aurtengo **ikastaro- ak**. Azkenean, 2 izango di-

ra: margolaritza eta egur pintaketa.

● Aurtengo udan bi **auzo- landegi** izango ditugu he- rrian. Horieta batean, In- tsustiko iturri inguruko par- ke botanikoa garbitu eta be- rrantolatuko da.

● Epe laburrean eskola in- guruan **semaforo** bat izan- go dugu, eskolameei bidea alde batetik bestera pasa- tzen laguntzeko. Ataungo "historian" lehenengo se- maforoa izango da hau.

● **Biztanleen udal errolda** berriztatu ondoren eta 1998ko urtarrilak 1 errefe- rentziaz hartuta, 1.568 biztanle gara, 807 gizonez- ko eta 761 emakumezko. Azken zentsotik berrira, 21 ataundar gutxiago gara ho- rrenbestez.

● **Heriotzak herrian:** Ke- rejeta lantegiko Maritxu Kerejeta eta Perune Zarreko Marikruz Galparsoro hil zaizkigu. Beren sendiekin bat egiten dugu euren nahi- gabeen.

Josune Aldabe

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 88 40 57 ☎ 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN

lues rothers
 BEASAIN



LADA
 Ssang Yong
 N-1, z/g
 ☎ 88 09 47

ARANDIA
 Garajea

AUTOEN KONPONKETA
 Iurre Auzoa
 OLABERRIA



Umeen arropa denda

**UDABERRI UDAKO
 MODA GUZTIA
 PREZIO ONEAN!!**

☎ 16 12 39
 Santa Maria, 13
 ORDIZIA

ORDIZIA Ordizian merkatari elkarteak II. Gala prestatzen

Ordizian merkatari elkarteak II. Gala egingo du martxoaren 28an eta 29an, Majori kiroldegian. Prestaketa lanetan murgildurik dabilta dendariak. Orain dela 2 urte egin zen lehenengo edizioa eta arrakasta handia izan zuen. Aurten 38 postu edo stand jarriko dituzte, aurreko edizioan baino 3 gehiago.

Bi egunetan luzatuko da gala. 28an, goizeko 11etatik iluntzeko 8ak bitartean egongo da irekita. Gloria Urteaga, Jose Antonio Ardanazaren emazteak inauguratuko du gala 11,15etan. Jakintza dantza taldearekin batera. Eguerdiko 12,30-etan, Goenkaleko aktoreei ongi-etorria egingo zaie. Egun guztian zehar ekitaldi kulturalak izango dira eta 8etan, modelo profesionalen desfilea izango da.

Igandean, martxoak 29, goizeko 10etan irekiko dira ateak eta gaueko 10etan itxi. Eguerdiko 12etan Rupper ileapaintzaile prestigio-tsuari harrera egingo zaio eta ordu erdi beranduago ileapaintzaileek beraien abilitadeak erakutsiko dituzte. Iluntzeko 8etan, bigarren modelo desfilea izango da.

Sarrerak 200 pezetan egongo dira salgai. Sarrerak egun baterako balioko du.

San Jose jaiak

Aurtengo San Jose jaiak ospatzen hasiak dira dagoeneko Zaharren egoitzan eta Jubilatuen elkarteak. Mus, tute, seiko urre, punttu, domino, toka, igel eta bilar txapelketako finalak jokatu dituzte martxoaren 16an, arratsaldeko 4etan.

Martxoaren 16tik 24ra



Kultur astea Jakintza ikastolan

Martxoaren 3tik 6ra bitartean ospatu zuen Jakintza ikastolak kultur astea. Hainbat ekintza izan zituzten astean zehar. 3an esaterako, Euskaraz Bizi eguna ospatu zuten. Euskararen erabilpena areagotzeko, herriko kaleetan jolasak euskaraz egin zituzten. Erosketak ere euskaraz egin zituzten. Handienek, erakunde publikoetan euskararen aldeko lema zeramatzaten soportek jarri zituzten. Aste kulturalaren azken egunean, Iñaki Perurenaren bisitaldia izan zuten.

bitartean, eskularen erakusketak izango da. Martxoaren 17an, 18:00etan, jaialdia izango da Jubilatuenegian. Hurrengo egunean, martxoak 18, Zaharren egoitzan, Umore Ona eta San Jose abesbatzen saioa izango da, 17:45ean.

Martxoaren 19n, San Jose eguna, goizean goizetik ospatuko dute 10:00etan, txistularien bandak diana joko du. Ordu batean, Beti Argi musika bandak kontzertua emango du herriko plazan. Bazkaria jubilatuenegian izango da ordu bietan eta jarraian dantzaldia Iturriozekin. Zaharren egoitzan ere izango da ekitaldirik: 11etan, Meza Santua; 11,30etan hamaiketakoak; 12etan Jakintza euskal taldearen emanaldia; 1ean, bazkaria Trio Alairekin eta jarraian Bernardo Alberro.

Martxoaren 23an azkenik, Ordizia antzerki taldearen 'La Boda' antzezlanak

izango dute jubilatuenegian, arratsaldeko 7etan.

Goitibehera lehiaketa

GAzte Asanbladak antolatuta goitibehera txapelketa jokatu du igandean, hilaren 15ean. Iaz ohizkoa ez den lehiaketa honek izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere ikuskizunaren alde egin dute OGAKoek. Ibilbidea iazkoaren antzekoa izango da: irteera Zaharren egoitzan kokatua egongo da, Egutera bidean barna Garagartza plazaraino iritsi eta hementik Euskalerrria kalea hartu eta Frai Andresearaino helduko dira partehartzailetak. Gudarien etorbideari jarraituz Sagardotegi inguruan egongo da helmuga.

Aipatu igandeko arratsaldeko 6etan hasiko da lehiaketa eta bertan bi motako goitibeherak bereiztuko dira, errodamentudunak eta gabeak. Irabazleentzat 5.000 pta.ko saria egongo

da zain. Antolatzaileek betebeharreko arau batzuk egongo direla ere jakinarazi dute: kaskoa eta frenuak derrigorrezkoak izango dira, goitibehera bakoitzak 2tik 5era bitarteko partaide kopurua izan beharko ditu eta bakoitzak 2.000 pta. ordaindu beharko ditu gastuengatik.

Juantxo taberna nagusi

Majorin jokatzeko den futbito txapelketan Alegikoak izan dira aurtengoan nagusi. Finaleko arerioak Ordiziako Tximista Sagardotegikoak izan ziren eta 7-3ko emaitzaz nagusitu ziren Juantxo Tabernakoak.

Final nagusiaren aurretik 3-4. postuak erabakitzeko norgehiagoka jokatu zen. Hemen Lazkaoko Alboka Taberna nagusitu zen Tolosako Orbela Tabernaren aurkako neurketan, 13 eta 2 irabaziz.

Urrirarte itxaron beharko da berriro ere futbito txapelketa lehian ikusteko. Baina bitartean Anexoko futbol txapelketa hasia dago dagoeneko eta larunbat arratsalde eta igande goizetan neurketak ikus daitezke Anexo futbol zelaian.

Izen abizenak euskal grafiaz

Euskarazko abizenak erdal grafiaz idatzita dituzun horrek aukera polita daukazu berauek aldatzeko. Martxoaren 17an, astearte, arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean azal zaitez Barrena jau-regira. Bertan Hitzaroko hainbat kide zain izango dituzu eta hauek emango dizue behar adina informazio.

Aitor Calvillo

ANTZIZAR HOCKEY TALDEA URTEBETEZ KIROL HONETAN TREBATZEN "Inguruko herrietako neskak animatu nahi ditugu gurekin entrenatuz kirola egiteko"

Duela urtebetetik Beasaingo Antzizar Hockey taldea martxan da. Beasain, Lazkao eta Ordiziako 10 jokalarari ari dira. Oraindik federatu gabe daude eta kirola egiteko edo hobby bezala hartzen dute. Lortu nahi dutena taldea handitzea da, federatu ahal izateko. Honela laguntza gehiago eduki ahal izango dituzte.

Susana de los Mozos, Elisabet Ruperez, Nieves Gonzalez, Monse Perez, Cristina Nuñez, Nekane del Rio, Marta Cordero, Mila Lasa, Amaia Romero eta Josune Artola dira jokalarari hauek. Hasera batean, lagun batzuek kirola egin nahi zuten, "hemen zegoena futbola, saskibaloia, boleibola eta betiko kirolak ziren. Zerbait ezberdina egin nahi genuen, ez genuen betikoa egin nahi. Bagenekien Euskal Herrian hockey taldeak zeudela, gehienak neskenak gainera, eta horrek animatu gintuen honetan hastera. Udalean proposamena egin genuen, ondo iruditu zitzaizaien eta hasi egin ginen", adierazi digute.

Duela urtebete hasi ziren entrenatzen eta federatu nahi bazuten ere ez zuten horretarako mailarik. "Beste talde guztiek urte asko daramatzate eta askoz ere



Neska hauei oso dibertigarria egin zaie hockeya nahiz eta haseran nahiko zaila izan.

hobeak dira. Barregarri gertatzearen beldur ginen. Orain entrenatzen ari gara egunen batean lehiatu ahal izateko. Kiroldegian entrenatzeko federatuta egon beharra dago, baina guri lagundu egin digute kirol hau egiten hasi ahal izateko".

Diru falta

Kirolerako Udal Institutuak instalazio guztiak dohainik uzten dizkiete. Udalaren laguntza badute baina ez da ekipoa erosteko adina oso

garestia baita, adibidez atezainak babeski asko behar ditu eta oso garesti ateratzen da. Stik-ak eta pelotak erosi badituzte ere oraindik jantzirik ez dute. Honetarako babesle bila dabilta. Orain kirol eskolarrean sartu dira eta horregatik diru piska bat jasotzen dute, haurrak entrenatuaz kirola promozionatu edo ezagutarazi nahi dute. Lagunarteko partidu bat ere egin nahi dute dirua ateratzeko.

Areto-hockeyean entrenatzen

Areto-hockeyan 6 jokalarik jokatzen dute eta belar-hockeyan 11k. Aretoko jokoa azkarragoa da eta pelota ez da kanpora ateratzen, denbora guztia jokatzen aritzen da, belarretakoa berriz futbola bezala da, pelota alboko marratik kanpora ateratzen da eta kolpeak ere ezberdinak izaten dira. Areto-hockeyan jokatzeak asmoa dute, belar-hockey taldea osatzeko adina jokalarik ez baitaude. Halere, orainarte ez dute inongo lehiaketetan, ez eta torneotan parte hartu. Horretarako datorren denboraldirako federatu eta entrenatzaile bat lortu nahi dute. Federazioko arduradunarekin harremanetan daude. "Federazioak berak talde bat du, eta prestatuta gaudenean eta nahi dugunean lagunarteko partidu bat jokatzeak prest daude".

Entrenatzaileak ere ez dute, oraindik, inguruan ez baitago aurretik hockeyan jokatu duenik. Beraiek ere aurretik ez zuten kirol honekin harremanik, ikastaro bat egin zuten 4 egunekoa, egunean 2 ordu, eta oinarri horrekin hasi ziren beraien kasara entrenatzen. Errealeko jokalariren batekin badute harremana eta harek pasatzen dizkie test batzuk eta entrenamenduetarako plan-gintzak.

Kirol ezberdina

Oso dibertigarria egin zaie kirol hau, nahiz eta haseran nahiko zaila izan. "Batez ere dibertigarria da beste kiroleetatik ezberdina delako, baina errazagoa izango litzateke entrenatzaile bat, ondo erakutsiko ligukeen norbait izanez gero", azaldu dute.

Taldearen parte hartzeko prest dauden guztientzat zabalik dago. "Inguruko herrietako neskak animatu nahi ditugu gurekin entrenatuz kirola egiteko. Talde seniorra denez adin nagusiko jokalaririk izan behar dira. Bi jubenil bakarrik eduki daitezke eta dagoeneko bat badugu, gainontzeko guztiak 18 eta 27 urte artekoak gara", diote. Kiroldegian buzoi bat dute taldearen parte hartu nahi duen edozeinek beraiekin harremanetan jarri ahal izateko. Entrenamenduak astearte eta ostegunetan Beasaingo Institutuan izaten dira 18:00etatik 20:00etara eta ostiraletan Antzizar Kiroldegian 17:00etatik 19:00etara.



1978ko idiazabalduarrak

Idiazabalgo Aita Iparragirre herri-eskolako ikasleak dira, 1978an jaiotakoak. Aratz Urteaga falta omen da argazkian.

Zutik, ezkerretik eskubira: Leire Iparragirre, Markos Retamosa, Garikoitz Eziolaza, Aritz Iparragirre, Luka Eziolaza, Iñaki Telleria, Oskar Diego, Ibon Elortza, Edurne Sarasola, Ainhoa Alustiza, Ainhoa Munduate eta Eider Imaz.

2. lerroan: Argoitz Urrestarazu, Izaskun Kuadrado, Lorea Eziolaza, Gorane Aierbe, Joseba Munarritz, Anartz Prados, Kristina Gonzalez, Aritz Lizarralde, Oskar Mambrillas eta Ugaitz Agirre.

3. lerroan: Roberto Mujika, Amaia Urteaga, Olatz Nograro, Alaitz Goikoetxea eta Oihana Irizar.

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

II. GALA

KOMERTZIALA

ORDIZIA
martxoak 28 - 29
MAJORI kiroldegia

ORDIZIAN Elkarteak antolatuturik

MERKATARITZA
FERI HAUNDIENA

Gremio guztiak
standetan
ordezkatuak

Bi moda
desfile

Emanaldiak

Ileapaintze
erakustaldiak




EUSKO JAURLARITZA



MERKATARI BAZKUNDEA



ORDIZIAKO UDALA



+ GURUTZE GORRIA

EL DIARIO VASCO

1. OLANO ZERAMIKAK.
2. CARRION ELEKTRAGAILUAK.
3. OTANO ZAPATADENDA.
4. PALOMO CONFECCION.
5. PALOMO HOGAR.
6. I.M. DISEINU GRAFIKOA.
7. DOMINGUEZ ASESORIA.
8. COMERCIAL GOIERRI.
9. VICUÑA SPORT.
10. GOIERRI ITURGINTZA.
11. MUNDUATE
- ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA.
12. AUSOEGI.
13. TUS PIES OINETAKOAK.
14. CUESTA HOGAR.

15. OSASUN DIETETIKA
- ZABALE DIETETIKA.
16. GARIN OKINDEGIA.
17. ARRIETA DROGERIA.
18. EZKURRA ATEAK.
19. GAMBARA.
20. KIXMI OPARIAK.
21. OTEGUL.
22. VICUÑA CONFECCION.
23. PORFIRIO FERNANDEZ (SASTRE).
24. HIDALGO BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA.
25. ARANTXA MERTZERIA.
26. TAMAYO PAPERTEGIA
- CREHUET BITXITEGIA.

27. IRURENA MERTZERIA.
28. LEKUONA OIHALAK.
- ZIPI ZAPE.
29. BELEN OPARIAK.
30. SUQUIA ELEKTRAGAILUAK.
31. BIASPRE LURRINDEGIA - OPARIAK.
32. ARANA POLTSAK
- OSKI OINETAKOAK.
33. FOTO GOEN.
34. AXOLA JANTZIDENDA.
35. ORDIZIA GORAZDE.
36. E. GUERRERO ANTIKUARIOAK.
37. OSTALARITZA.
38. PRENTSA ARETOA.